



Barrikako Udala

BARRIKA UDALERRIAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

2010eko urria

HERRITARREN PARTAIDETZA-PROGRAMA

País Vasco

c/ Quintana nº1 5ºB
48007 Bilbao
e-mail: erdu@erdu.es
tel. / fax. 94 657 54 80



Navarra

c/ Berroa nº19 - 409
31192 Tajonar
e-mail: erdu@erdu.es
tel. / fax. 948 28 18 47

HERRITARREN PARTAIDETZA-PROGRAMA
BARRIKA UDALERRIAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA.- PLAN OROKORRAREN ERREDAKZIO-PROZESUKO PARTAIDETZA.....	5
1. ATALA.- KONTZEPtualIZAZIOA	5
2. ATALA.- LEGERIA	5
3. ATALA.- MUGAKETA	5
II. KAPITULUA.- HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK	7
III. KAPITULUA.- AURREIKUSITAKO JARDUERAK (PARTAIDETZA-MEKANISMOAK)	8
1. ATALA.- GAIAREN PLANTEAMENDUA	8
2. ATALA.- JARDUEREN KRONOGRAMA	9
3. ATALA.- JARDUEREN DESKRIBAPEN KONKRETUA	11
3.1. Txostenak eskatzea.....	11
3.2. Tokikoekin elkarlanean egindako landa-lana	11
3.3. Elkarriketa pertsonalizatuak	11
3.4. Aldez aurretiko galdeketa	12
3.5. Agiriak Udalaren web orrian eskuratzeko aukera	13
3.6. Lurralde-administrazioekin egindako jarraipen-bilerak	13
3.7. Jendaurrean erakustea	14
3.8. Ebaluazio-tailerrak	14
3.9. Hitzaldia eta mahai-ingurua.....	15
3.10. Dibulgazio-panelen erakusketa	15
3.11. Herritarren arreta. Hitzordua	15
3.12. Laburpen exekutiboa	15

I. KAPITULUA.- PLAN OROKORRAREN ERREDAKZIO-PROZESUKO PARTAIDETZA

1. ATALA.- KONTZEPTUALIZAZIOA

Hirigintza arloko lege eta arau guztiak herritarren partaidetza lortzera bideratuta daude, bai egiteko orduan, baita aldatzeko orduan ere. Partaidetza funtsezko elementua da, diziplina bera existitzea bezala. Horrenbestez, hiri antolamenduari herritarren partaidetza eta euren iritzia adierazteko dituzten bideak kenduz gero, edukia ere kentzen zaio, sortzen eta eratzen duen funtsa bera kentzen baita; hainbeste non, partaidetzarik gabe, hots, herritarren esku-hartzerik gabe, hirigintzari legitimazioa falta baita.

2. ATALA.- LEGERIA

Herritarrek hirigintzaren plangintza egiteko orduan parte hartzea konstituzio aurreko hirigintza-legeek aitortutako eskubidea da, eta eskubide hori legedia autonomiko guzti-guztiek mantendu izan dute. Erkidego guztietan Administrazioak bermatu eta sustatu beharreko eskubide gisa ulertu izan da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak hirigintza-araudiaren oinarritzko printzipio gisa (*Herritarren parte-hartzearen printzipioa* izeneko 8. art.) eta antolamendu estrukturalari eragiten dion hirigintza plana egiteko ezinbestekoa den tresna eraginkor gisa hartzen da (*Plan Orokorrean Herritarrek Parte Hartzeko Programa* izeneko 108. art.). Agiri honetan izapide hori jorratuko dugu, araua betetze aldera:

“Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu”.

3. ATALA.- MUGAKETA

Hiri antolamenduak, gizartearen zein erakunde publiko eta pribatuen interesekoak izan daitezkeen eta antolamenduarengan eragina duten plan eta arau guztiek bezalaxe, erabaki politiko bat izaten du atzean, eta horrenbestez, halakoak onartzerakoan ahalik eta adostasunik handienarekin egitea da zentzuzkoena. Hori dela eta, legedian hirigintza-planeamendua demokratizatzea hartzen da hura gauzatzeko modurik egokientzat, eskudun agintariek bakarrik erabaki beharrean.

Herritarren partaidetza hirigintza-jardueraren printzipioetako bat da hirigintza-zuzenbidean, eta Administrazioaren eginbeharra da hori betearaztea horretarako bide egokiak ezarrita. Parte hartzeko eskubide hori ordezkartza-demokraziaren osagarria den elementua da, ez haren ordezkari aukera, eta ordezkartutako herritarrek beren ordezkariak kontrolatzeko duten sistema hobetzeko parada ematen du.

Hala ere, hirigintzaren demokratizazioak ere bere mugak ditu. Alde batetik herritarrak eurak, lurraldearen antolamenduari eta haren erabilerari buruzko erabakiak hartzerakoan gailendu behar diren irizpideak eta estrategiak ulertzeko orduan beren gain hartu behar duten erantzukizuna dela eta. Bestetik, Udalak hirigintza arloan duen erabaki-ahalmena herritarrekin konpartitzeko duen boterea.

Gauzak horrela, ondoz ondoko epaiek eragindako jurisprudentziak ere mugatu izan du partaidetzarako eskubidea eta haren hedapena. Oso ohikoa izaten da hiri-planeamenduen prestakuntzan herritarrek parte hartzeko eskubide hori funtsezko eskubidetzat jotzea Konstituzioaren (EK) 23.1 artikuluari jarraiki. Horren inguruan komeni da uztailaren 17ko 119/1995 epaiko zenbait paragrafo aipatzea, honakoa baitiote:

“Horrenbestez, hirigintza-araudian xedatutako informazio publikoak tramitzeko eskubidea ez da Espainiako Konstituzioaren 23.1 artikuluan jasotzen den politikan parte hartzeko eskubidea. Administrazioaren jardueran parte hartzea da, eta ez da herritarren subiranotasuna erabiltzeko modu bat, euren eragiten dieten erabakiak hartzen direnean

HERRITARREN PARTAIDETZA-PROGRAMA

BARRIKA UDALERRIAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

euren ahotsa entzunarazteko herritarrek Estatu sozialetan izan behar dituzten bideetako bat baizik. Ezin da eskubide horren garrantzia zalantzan jarri, baina Lege baten ondorioz jaiotakoa da eta legegileak nahi izan duen moduan taxututa dago; **eskubide horrek, zentzu hertsian, ez du politikan parte hartzeko aukerarik ematen, administrazioaren jardueran parte hartzekoa baizik; funtzionala da eta prozedurari lotuta dago, eta herritarren eskubideei eta interes legitimoiei dagokienez prozedura egokia izango dela bermatzen laguntzen du.** Parte hartzeko modu horietako asko elkarteen eta korporazioen bitartez antolatzeak berak argi uzten du EKren 23. artikulua bermatzen duen politikan parte hartzeko eskubideak ez duela hizpide dugun eskubidearen izaera bera.

EKren 23.1 artikulua legegileen esku-hartzea eskatzen duen eskubide bat bermatzeak ez du esan nahi interes soziala, ekonomikoa, profesionala edo bestelako interesa sortzen duten gaietan egiten den edozein partaidetza mota, legeak jasotzen baldin badu, konstituzioak babestuko duenik. Kontrara pentsatu behar da: EKren 23.1 artikuluan jasotako partaidetza politikoa eremuan egonez gero bakarrik esan daiteke lege xedatutako partaidetza mota jakin bat urratzeagatik funtsezko eskubide bat urratu dela. Ikuspuntu horretatik ulertu behar da Auzitegi Konstituzionalaren baieztapena, hots, 23.1 artikulua ez dela herritarrei gai politiko guztietan parte hartzeko eskubidea ematen; izan ere, arlo jakinetan parte hartu ahal izateko deialdi edo eskumen bereziren bat behar da organo publikoen kasuan, edo legitimazio bereziren bat zuzenbide pribatuko erakunde edo subjektuen kasuan. Kasu horretan, legeak antolatu ahal izango du hori. Edonolako partaidetza izateko beharrezkoa den deialdi berezi hori, gainera, erabaki politikoetan zuzenean parte hartzeko deialdia izan behar da EKren 23.1 artikulua partaidetzarako eskubideak babestutako konstituzio-eremuan sartuko bada. Ondorioz, politikan parte hartzeko eskubide bat aipatutako artikuluan sar daitekeen edo ez erabakitzeko deialdiaren izaera eta forma hartu behar dira kontuan, baina baita xedea ere: zuzenean edo ordezkarien bidez botere politikoa betetzera bideratutako partaidetza bakarrik sartuko da 23.1 artikuluan, eta beraz, kasu horietan bakarrik emango da funtsezko eskubidea.

Lege batean jasotako partaidetza EKren 23. artikulua manifestazio zehatz moduan hartu ahal izateko ezinbestekoa da partaidetza politikoa izatea, hau da, normalean ordezkarien bidez gauzatzen den (eta kasu konkretuetan zuzenean herritarrek gauzatzen duten) herri-subiranotasunaren manifestazioa. Horrenbestez, ondoriozta daiteke partaidetzarako eskubidea Estatuaren eta hura osatzen duten lurralde-erakundearen legitimazio demokratiko zuzenaren esparrura mugatzen dela, eta beraz, kanpoan geratzen direla funtsezko beste eskubide batzuetatik, beste mota bateko arau konstituzionalatik edo horiek lege onartzetik eratorritako bestelako partaidetza motak.

EKren 23.1 artikulua arabera, herritarrek kontu publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, dela zuzenean, dela aldizkako hauteskundeetan sufragio unibertsal bidez libreak aukeratutako ordezkarien bidez. <<Kontu publikoak>> esapidea ez da bat ere zehatza, eta lehen begiratuan pentsa liteke eremu pribatutik haraindiko edozein inguruko gaietako partaidetza oro barne hartzen duen zuzenbide-esparrua esan nahi duela; baina hitzez hitzeko interpretazio hori ez da, inolaz ere, posible den bakarra eta ez dirudi egokia ere arau bere osotasunean aztertu eta beste arau konstituzional batzuei lotzerakoan.

Egia da jendaurreko erakustaldiaren tramitearen bidez nolabaiteko legitimotasuna ematen zaiola Hirigintza Planari (hala ere ezin da ahaztu kasu honetan demokratikoki hautatutako Udalak onartu izanak ematen duela legitimotasun demokratikoa). Baina tramitearen helburua ez da hautesleei aurretiaz hartu duten erabakia berresteko edo erabaki hori nola hartu behar den zehazteko deialdia luzatzea, baizik eta interesa dutenei zein, besterik gabe, hala nahi dutenei beren iritzia emateko aukera eskaintzea, Administrazioek informazio-iturri gisa erabili eta hartuko den neurria ahalik eta egokia izan dadin, eta erabakiak kaltetu ditzakeen norbanakoen eta taldeen interesak defendatu ahal izateko bide bat ezartzea ere bada tramitearen xedeetako bat. Hitz batez, interesa duten pertsonen eta taldeen erabakiak hartzeko prozeduran parte hartzeko egiten zaien deialdia da."

Hitz batez, orain arteko eta aurrerantzeko hirigintzako legedian jasotzen den herritarren partaidetza botere publikoa betetzen dutenak kontrolatzeko tresna bat da, ez kontra-boterea. Partaidetzaren helburua administrazioari iritzi ezberdinak helaraztea da, baina erabakiak eskudun organoek baino ezingo dituzte hartu; herritarrek egindako alegazioak eta iradokizunak erabakia hartzeko prozesuan kontuan hartu beharreko beste aukera bat baino ez dira izango.

II. KAPITULUA.- HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

Proposatutako partaidetza-prozesuaren bidez hainbat helburu eta estrategia lortu nahi dira, besteak beste:

Hona hemen helburu posibleen artean azpimarragarrienak:

- Hirigintza-agiria fase ezberdinetan argitaratzea, izan ere, plana jendaurrean azaltzea eta herritarrek haren berri izatea ezinbestean daude partaidetzarekin lotuta, partaidetza ezin baita jendaurrean erakusteko prozesurik gabe ulertu.
- Herritarrek Planari buruzko informazioa eta haren berri izateko eskubidea erraztea.
- Herritarrek Plan Orokorra egiterakoan eta bideratzerakoan parte hartzea modu aktiboan sustatu eta bultzatzea norbanakoen, Udalaren eta Plan Orokorraren erredakzio-taldearen arteko informazio-fluxuak ahalbidetzeko behar diren bideak ezarrita.
- Herritarrei nahiko teknikoak izan ohi diren agiriok ulertzeko modua ematea.
- Herritarrek hirigintza arloan dituzten usteak, ardurak eta interesak bideratzea.
- Herritarrei planeamendu-prozesuan esku hartzeko aukera ematea Plan Orokorrak proposatutako lurraldearen okupazio-ereduari buruz eta antolakuntza-eremu ezberdinei eragiten dieten proposamen eta neurrien taldeari buruz duten iritzia emanez.
- Bereziki, partaidetza-prozesuak sustatzeko premiari buruzko legezko agindua betearaztea.
- Era berean, Herritarren Partaidetzarako Programaren helburua indarrean dagoen legedian agiria jendaurrean azaltzeko aurreikusitako tresnak eta neurriak (jendaurrean erakusteko izapidea, iradokizunak eta alegazioak) betearaztea da.
- Indarrean dagoen legediaren agindu zehatzei erantzutea, esaterako, hirigintzako Planaren agiria telematikaren bidez argitaratzeko betebeharra (estatuko LLTB/08ren 9.2 xedapen gehigarria).

Aipatutako xede horiek guztiak estrategia batek lotzen ditu: ahalik eta herritar, eragile eta erakunde gehienei Plan Orokorra idazteko prozesuan parte harraraztea. Horri esker honako helburu zehatzak lortu nahi dira:

- Alde batetik, eskudun lurraldeko administrazio publikoak agiria idazteko eta eratzeko prozesuan sartzeari hasierako faseetatik. Era berean, euren eskumenetan eragina jasan dezaketen bestelako administrazio publikoei ere entzunaldia eman nahi zaie. Horrek agiria behin betiko onartzerakoan tramitazioa errazagoa eta azkarragoa izatea ekarriko du.
- Herritarren artean hirigintzaren kultura sustatzea hirigintza arloan legez kanpokoak diren egoerak eta arau-haustekak ekiditeko eta zuzentzeko. Herritarrei lurraldearen erabilera eta eraikitzearen eskubidea arautzen dituzten arauak ezartzeko eta errespetatzeko beharra ulertarazi nahi zaie, gizartearekiko elkarbizitza eta herritarrek beren ingurune naturalarekiko duten harremana hobetzeko sistema gisa.
- Adostasun-maila handia lortzea bai herritarren artean, baita politikarien eta erakundearen artean ere; alde batetik Udalean bertan, Osoko Bilkura eratzen duten alderdi politikoaren artean; bestetik, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako eskudun teknikariek, beren eskumenak direla eta hirigintzako agiriak prestatzeko prozesuan era batera zein bestera parte hartzen duten sail ezberdinen artean.

III. KAPITULUA.- AURREIKUSITAKO JARDUERAK (PARTAIDETZA-MEKANISMOAK)

1. ATALA.- GAIAREN PLANTEAMENDUA

Helburuei eta estrategiei buruzko kapituluan adierazitako ideiak berriro hartuta, oso interesgarria da hizpide dugun tramitea aprobetxatuta benetan eraginkorra den eta agiriaren edukia hobetzen zein hura izapidetzeko eta onartzeko prozesua errazten lagunduko duen partaidetza-prozesu zabala gauzatzea. Horrenbestez, Partaidetza-programa eta bertako proposamenak tartean dauden pertsonak edo erakundeak kontuan hartuta egiteko eta bideratzeko proposatzen da.

Izapidearen helburu nagusia ez da informazioa eta ezagutza lortzea, baizik eta erakundeek, herritarrek eta bestelako eragileek jakinaraz ditzaketen arazoak eta eskariak, iritziak, jarrerak eta ikuspuntuak antzematea. Prozesu erabilgarria eta onuragarria da lortu nahi den xedea erdiesteko, hau da, udalerrriaren hiri- eta lurralde-antolamendua egitea. Gauzak horrela, hiru eremu proposatzen dira:

- Erakundeen partaidetza
- Teknikarien partaidetza
- Herritarren partaidetza

Lehenengoaren helburua erakundeen eta udalerrian garrantzitsuak diren elkarten arteko parte-hartzea lortzea da (adibidez, ingurumena babesteko eta defendatzeko elkarteak, gremio-elkarteak, eraikitzaileen eta sustatzaileen taldeak, arkitektoen elkargoa eta abar). Barrikaren kasuan, udalerriko instituzioak eta elkarteak biltzen dituen Udal Planeamendurako Aholkularitza Batzordea eraikitzea planteatu da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. eta 110. art.). Udalak ere izango du ordezkari Batzorde horretan.

Bigarrenaren xedea, funtsean, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlana lortzea da, eta hala dagokionean, baita kasuan kasuko Udalen Mankomunitatearen artekoa ere. Azpiegiturak kudeatzen dituzten enpresak ere sartu daitezke (Uraren Agentzia, Iberdrola, saneamendua, etab.).

Hirugarren eremua herritarrei eta interes partikularrak ordezkatzeko dituzten bestelako elkarteei (auzo elkarteak eta antzekoak) buruzkoa da.

Jardueretarako proposamenak indarrean dagoen legedian legez xedatutako partaidetza-uneak barne hartzen ditu. Hala ere, beste proposamen batzuekin osatzeaz gain birgaitu ere egingo ditu ahalik eta erabilgarritasun eta eraginkortasun handiena lortzeko.

Agiria argitaratzeko ekintzak ere sartzen dira Partaidetza-programan. Azkenik, proposatutako programak jarduera mota ezberdinak konbinatzen ditu bakoitza abian jartzeko unerik egokienaren arabera. Informazioa eta irizpideak lortzeko xedea duten jarduerak proiektuaren hasieran kokatzen dira. Azalpenak, balorazioak eta adostasuna helaraztekoak, aldiz, erredakzio-taldeak agiriak formalizatzerakoan agertzen dira.

2. ATALA.- JARDUEREN KRONOGRAMA

Jarraian dagoen taulak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra prestatzeko faseak eta jarduera ezberdinak lotzen ditu eta bakoitza abian jartzeko unea azaltzen du.

ERREDAKZIO-FASEA	AURREIKUSITAKO JARDUERAK			
	ERAKUNDEEN PARTAIDETZA	TEKNIKARIEN PARTAIDETZA	HERRITARREN PARTAIDETZA	AGIRIA ARGITARATZEA
Atarikoak		Txostenak eskatzea	Dibulgazio-panelak ikusgai jartzea	
1. fasea: Informazioa, diagnostikoa eta lan-irizpideak	Landa-lana tokikoekin elkarlanean			
	Elkarrizketa pertsonalizatuak		Aldez aurretiko galdeketa	
	Laneko bilerak			Laburpen exekutiboa eta dibulgazioa
	Egindako agiria berrikustea eta balioestea		Ebaluazio-tailerrak	Agiriak Web orrian eskuragarri
2. fasea: Aurrerapena egitea	Landa-lana tokikoekin elkarlanean			
		Jarraipenerako bilera lurraldeko administrazioekin		Komunikabideei Informazioa ematea
	Laneko bilerak		Agiriak jendaurrean erakustea	Laburpen exekutiboa eta dibulgazioa
	Egindako agiria berrikustea		Herritarren arreta. Hitzordua	Agiriak Web orrian eskuragarri
Agiriari buruzko txostena		Irakokizunak aurkeztea eta banakako erantzuna jasotzea	Hitzaldia eta mahai-ingurua	
3. fasea: Bideratzeko agiria egitea hasieran onartu ahal izateko	Landa-lana tokikoekin elkarlanean			
		Jarraipenerako bilera lurraldeko administrazioekin		Komunikabideei informazioa ematea
	Laneko bilerak		Agiriak jendaurrean erakustea	Laburpen exekutiboa eta dibulgazioa
	Egindako agiria berrikustea		Herritarren arreta. Hitzordua	Agiriak Web orrian eskuragarri
Agiriari buruzko txostena		Alegazioak aurkeztea eta banakako erantzuna jasotzea	Hitzaldia eta mahai-ingurua	
4. fasea: Bideratzeko agiria egitea Behin-behinean onartu ahal izateko				Agiriak Web orrian eskuragarri
5. fasea: Bideratzeko agiria egitea Behin Betiko onartu ahal izateko				Komunikabideei informazioa ematea
		Jarraipenerako bilera lurraldeko administrazioekin		Laburpen exekutiboa eta dibulgazioa
				Agiriak Web orrian eskuragarri

3. ATALA.- JARDUEREN DESKRIBAPEN KONKRETUA

Jarraian, aurreikusitako jardueren zehaztasunak deskribatzen dira:

3.1. TXOSTENAK ESKATZEA

Indarrean dagoen legediari jarraiki Berrikusketa egiteko kontuan hartu beharreko gaiak eta kontuak zuzenean ezagutzeko, dauden arriskuei eta antolamenduak errespetatu behar dituen baldintzatzaile ezberdinei (ingurumenari, kultura-ondarearen babesari eta inguru naturalari dagozkionak) buruzko informazioa eskatuko zaie babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta inguru naturalaren arloetan eskumenak dituzten Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta kasu bakoitzean egoki diren bestelako administrazioen (Ur Konfederazioa, Estatuko Ministerioak, ADIF, etab.) organoei.

Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, litekeena da aldez aurretik txostena eskatu behar izatea honako gaitan eskumena duten sailei:

- Lurralde-antolamendua eta Hirigintza.
- Etxebizitza.
- Ingurumena.
- Tokiko Administrazioa.
- Gizarte-politika eta Gizarte-zerbitzuak.
- Kultura, Osasuna eta Kirolak.
- Herri Lanak eta Garraioa.
- Nekazaritza eta Mendiak.
- Ondare Historikoa eta Arkeologikoa.
- Urak.

Izapidea aprobetxatuta, honako erakundeei ere eskatuko zaie informazioa:

- Horniduraren, saneamenduaren, elektrizitatearen, telekomunikazioen eta gasaren arduradunak edo kudeatzaileak diren erakundeak.
- Komunikazio-azpiegituren arduradunak edo kudeatzaileak diren erakundeak.

Kontsulei ofizialtasun handiagoa emate aldera, proposatu da Udala izatea erredakzio-taldeak egindako galderak egingo dituen, lanen sustatzailea den aldetik.

3.2. TOKIKOEKIN ELKARLANEAN EGINDAKO LANDA-LAN OSAGARRIA

Tokiko erakundeek edo ordezkariak ongi ezagutzen dute ingurua, beraz, gomendagarria da egun bat edo gehiago ematea eraikuntzaren okupazio/erabilgarritasun egoera, arkitektura- eta ondare-ondasunen (eta bestelakoen) berrikusketa eta paisaiari eta estetikari buruzko balorazioa eta kritikak bezalako gaiak hobeto definitu eta zehaztu ahal izateko lanetan.

Horretarako zera proposatu da, beharrezkotzat jotako egun horietan deskribatutako landa-lana definitzea ahalbidetuko duten ibilbideak oinez egitea tokiko laguntzaileekin.

3.3. ELKARRIZKETA PERTSONALIZATUAK

Daukaten garrantziagatik edo oihartzunagatik udalerria ordezkatzeko duten organotzat hartzen diren tokiko eragile jakin batzuen eta erredakzio-taldearen artean udalerraren gaur egungo egoerari eta etorkizunerako igarpenari buruz egindako azterketa eta balorazioa da.

Gutxi gorabehera, eta Udalaren laguntzaz behin betiko zerrenda egin bitartean, honakoa izan daiteke elkarrizketatu beharreko eragileen zerrenda:

- Udal-taldeak (banakako elkarrizketa).
- Udaleko langileak (arkitektoa, arkitekto teknikoa, etab.).
- Kultura-elkarteak.
- Kirol-elkarteak.
- Ekonomia-sektoreak (zerbitzuak, nekazaritza eta abeltzaintza, eta industria).

Aholkularitza Batzordea osatzen duten erakunde eta elkarte guztiei egingo zaizkie elkarrizketa pertsonalizatuak.

Elkarrizketak eta galdetegiak erredakzio-taldeak prestatuko ditu. Gaiak eskatzen duen formaltasuna lortzeko xedez, Udalak berak deituko ditu elkarrizketak eta bidaliko ditu galdetegiak.

Udalak elkarrizketa pertsonalizatuak egiteko espazioa utziko dio erredakzio-taldeari.

3.4. ALDEZ AURRETIKO GALDEKETA

Udaleko web orrian edozein herritarrek modu ireki eta interaktiboan erantzun ahal izango duen galdeketa bat jartzea proposatu da. Galdeketaaren edukia erraz aurkitu eta ulertzeko modukoa izango da.

Erredakzio-taldeak alde zuzeneko galdeketaaren edukia prestatzeko, haren balorazioa egiteko eta emaitzak laburbiltzeko konpromisoa hartu du. Proposamen hau abian jartzeko eta garatzeko behar diren programazio-, ezarpen-, mantentze- eta iraulketa-lan informatikoak zein bestelako edozein ataza Udalaren kontura eta pentzura egingo dira.

GALDEKETARAKO PROPOSAMENA

Galdeketa orokorrean udalari buruzko honako alderdiak aipa daitezke:

- Alderdi sozio-ekonomikoak:
 - Biztanleen ustezko garapena eta mota (lehenengo edo bigarren egoitza).
 - Jarduera ekonomikoak: aukera eta ekimen berriak.
- Funtzio nagusien eta azpiegituren ondoriozko alderdiak:
 - Etxebizitzak eta babeseko etxebizitzak.
 - Ekipamendu eta zerbitzu ezberdinak.
 - Hiriko trafikoa. Aparkalekuak. Garraio publikoa.
- Oinordetzan hartutako ondarea zaintzeko eta hobetzeko alderdiak:
 - Ingurumena. Espazio libre naturalak.
 - Arkeologia.
 - Existitzen den ondare eraikia.
 - Hiri-akaberak: zolaketa, altzariak, zuhaitzak, argiak. Iritzia honakoak

kontuan hartuta bultzatuko da:

- Egun dauden eta etorkizunean egon daitezkeen arazoaren definizioa.
- Egoera desiragarria.
- Egoera desiragarri hori lortzeko abian jarri beharreko ekintza posibleak.

Hala ere, interesdunak puntu horiek zein interesgarritzat jotzen dituen beste batzuk jasotzen dituen txosten pertsonalizatua egin dezake, uste baldin badu erredakzio-taldeak puntu horiek ezagutu edo kontuan hartu behar dituela.

3.5. AGIRIAK UDALAREN WEB ORRIAN ESKURATZEKO AUKERA

Jendeak Planeko lanak eta agiriak ezagutzea errazteko, dokumentazioa Udalaren Web orrian jartzea eta deskargatzeko aukera ematea proposatu da. Honako agiriak jarri nahi dira, hain zuzen:

- *Informazioa, diagnostikoa eta lan-irizpideak* izeneko 1. fasea amaitzerakoan:
 - Informazio-memoria
 - Informazioaren planoak
- *Aurrerapena egitea* izeneko 2. fasea amaitzerakoan:
 - Memoria
 - Planoak
 - Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Aldez Aurretiko Azterketa (IEBE)
- *Bideratzeko agiria egitea Hasieran onartu ahal izateko* izeneko 3. fasea amaitzerakoan:
 - Antolamendu-memoria
 - Antolamendu-planoak
 - Araudi orokorra eta partikularra
 - Katalogoa
 - Ordenantzak (hala badagokio)
 - Ekonomia eta Finantza arloko Azterketa
 - Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterketa (IEBE)
- *Bideratzeko agiria egitea Behin-behinean onartu ahal izateko* izeneko 4. fasea amaitzerakoan:
 - Antolamendu-memoria
 - Antolamendu-planoak
 - Araudi orokorra eta partikularra
 - Katalogoa
 - Ordenantzak (hala badagokio)
 - Ekonomia eta Finantza arloko Azterlana
 - Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterketa (IEBE)
- *Bideratzeko agiria egitea Behin Betiko onartu ahal izateko* izeneko 5. fasea amaitzerakoan:
 - Antolamendu-memoria
 - Antolamendu-planoak
 - Araudi orokorra eta partikularra
 - Katalogoa
 - Ordenantzak (hala badagokio)
 - Ekonomia eta Finantza arloko Azterlana
 - Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterketa (IEBE)

Erredakzio-taldeak dokumentazioa pdf formatuan emateko konpromisoa hartu du, oso formatu erabilia eta erabilerraza delako.

Proposamen hau abian jartzeko eta garatzeko behar diren programazio-, ezarpen-, mantentze- eta iraulketa-lan informatikoak zein bestelako edozein ataza Udalaren kontura eta pentzura egingo dira.

3.6. LURRALDE-ADMINISTRAZIOEKIN EGINDAKO JARRAIPEN-BILERAK

Mota horretako Plan bat egiterakoan oso garrantzitsua izaten da tartean diren lurralde-administrazioek agiria ahalik eta azkarren ezagutzea, eurek baitute hura behin betiko onartzeko eskumena. Legez ezarritako izapide-segidan administrazio horiek oso fase aurreratuetan esku hartzea aurreikusten da (behin-behineko onarpena egiterakoan). Horrenbestez, proposatu da Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako hirigintza eta lurralde-antolamendu sailtako teknikariek azalpen-bilera puntual eta zehatzak egitea honako momentuetan:

IEBEren kasuan, Ingurumen sailtako teknikariek ere bilerak egiteko proposatuko da, aipatutako bilerekin batera.

PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL MUNICIPIO DE BARRIKA

Hala eskatzen duen gai, proposamen edo arazoren bat dagoenean bestelako sailekin (Kultura, Herri Lanak) ere bilerak egiteko proposatuko da.

Bilera bakoitzaren akta egin beharko da.

3.7. JENDAURREAN ERAKUSTEA

Legez aurreikusitako momentuetan agiriak jendaurrean erakusteko proposatzen da.

Erredakzio-taldeak honako materiala egiteko konpromisoa hartu du:

- Kartel telematikoak egitea Planeko planorik esanguratsuenekin. Horiei eusteko behar diren euskarri eta egiturak Udalak ordainduko ditu, erakusketaren tokia eta baldintzak kontuan hartuta.
- Planaren zehaztapenak laburbiltzeko planoak ere egingo dira. Horiei eusteko behar diren euskarri eta egiturak Udalak ordainduko ditu, erakusketaren tokia eta baldintzak kontuan hartuta.
- Taldeak Plana osatzen duten agirien 2 kopia emango ditu erakusketan erabili ahal izateko.
- Erakusketan proiektatzeko agiri digitala.

Kasu guztietan, Udala honako gaiez arduratuko da:

- Egin beharreko erakusketak eta hitzaldiak garatzeko lokala ematea eta prestatzea.
- Ekitaldiak iragartzea.
- Erakusketak prestatzeko laguntza logistikoa ematea. Euskarriak, egiturak eta abar.
- Erakusketen ondorioz sortzen diren eta erredakzio-taldeak beren beregi hartzen ez dituen gastuak ordaintzea.

3.8. EBALUAZIO-TAILERRAK

Planaren gidalerro nagusiak eztabaidatzeko eta ebaluatzeko lan-saio telematikoak dira. Lanerako foro telematikoak sortuko lirateke: etxebizitza, jarduera ekonomikoa, mugikortasuna, hiri-kalitatea, lurraldea, ingurumena, eta abar. Lan-saioaren hasieran banatutako galdetegi telematikoak oinarri hartuta, lan-mahaietan baloratu eta eztabaidatuko diren gogoetak eta proposamenak egiteko gonbitea luzatuko zaie partaideei. Horrela herritarrek modu aktiboan parte hartzea lortu nahi da.

Bi edo hiru hilez hamabost egunean behin bilerak egitea nahikoa izan beharko litzateke jarduera burutzeko.

Beste udalerrri batzuetako esperientzia kontuan hartuta, uste dugu lan-mahai horietako moderatzaileak erredakzio-taldeko kideak izan behar direla. Horrek izugarri aberasten ditu eztabaida eta elkarriketa, eta jarduera benetan emankorra izatea ahalbidetzen du. Horrenbestez, saio horiek erredakzio-taldeak berak zuzen eta gida ditzala proposatu nahi dugu.

3.9. HITZALDIA ETA MAHAI-INGURUA

Herritarrentzako hainbat hitzaldi eta mahai-inguru antolatzeko aukera planteatzen da. Udalerriko Plan Orokorren zeregina herritarrei hurbiltzea, erredakzio-taldea aurkeztea, agiria egiteko prozesuan izango duten partaidetza nolakoa eta zenbaterainokoa izango den finkatzea eta edukia aurkeztea izango da horien helburua. Halakoak egiteko une egokia izaten da jendaurreko erakusketen irekiera.

Erredakzio-taldea arduratuko da dokumentazioaren, panelen eta bestelakoen proiektzioak prestatzeaz. Hitzaldi eta mahai-inguru horiek egiteko lokala eta baliabide teknikoak Udalak utziko dizkio erredakzio-taldeari.

3.10. DIBULGAZIO-PANELEN ERAKUSKETA

Udalerriko biztanleria osoari zuzenduta daude eta euren helburua Udal Plan Orokorren agiria ulerterraz egitea da. Xafla horien xedea Plan Orokorren erredakzio- eta tramitazio-prozesua herritarrei hurbiltzea da, udalerrirako egokia izango den hiri-ereduaren definizioa uler eta barnera dezaten.

Panelotan oinarritzko datuen, Plana egiteko faseen eta, garrantzitsuena, PARTAIDETZAREN une erabakigarrien berri ematen da, maila ezberdinetan, Planak aurrera egin ahala.

3.11. HERRITARREN ARRETA. HITZORDUA

Hirigintzako legediak Plana jendaurrean erakustera behartzen du, bai Aurrerapena egiterakoan, baita agiria Hasieran onartu ondoren ere. Erakustaldi horiei esker har dezakete parte herritarrek, "iradokizunak" (Aurrerapenean) eta "alegazioak" (Hasierako Onarpenean) aurkezteko aukera ematen baitute. Edozein herritarrek zein erakundek esku har dezake.

Izapide horiekin batera erredakzio-taldeko kideak (funtsean Plan Orokorren arkitekto koordinatzailea eta hirigintza arloko abokatuak) ekarriko dituzten saioak ere egitea proposatzen da. Hala ere, erredakzio-taldeko beste kide batzuk (IEBERen, mugikortasunaren zein zaraten maparen arduradunak) kontsulta horietara bertaratzeko komenigarria ote den baloratuko da.

Gauzak horrela, beste Plan Orokor batzuk erredaktatzerakoan pilatutako esperientzian oinarrituta, saio horietara erredakzio-talde pertsonalizatua bertaratzeko proposatzen dugu. Jendaurreko erakusketa zabaltzen den egunetik aurrera, hala nahi duten herritarrek hitzordua eskatu ahal izango dute erredakzio-taldearekin. Ondoren, igorritako eskabideak kontuan hartuta, hala eskatu duen herritar bakoitzari hitzordu partikularra emango zaio eta behar besteko epearekin (egunak) jakinaraziko zaizkio hitzorduaren data eta ordua. Elkarriketa bakoitzak 15 eta 20 minutu arteko batez besteko iraupena izango duela uste da.

Planteamendu horri jarraiki, espero da prozesu hori jendaurreko erakusketaren azken aldiarekin batera hasiko dela.

Proposamen horrek helburu bikoitza du, alde batetik, eskatutako kontsultak, iradokizunak eta informazioak pertsonalizatzea, eta bestetik, partaidetza-prozesuari arrazoizko irizpidea ematea herritarrek pilaketarik, itxaronaldirik eta deserosotasunik jasan beharrik izan ez dezaten.

3.12. LABURPEN EXEKUTIBOA

Agiria eskuratzeko eta ulertzeko prozesua errazteko xedez (bereziki jendaurrean erakusteko uneetan), Planaren laburpen exekutibo laburra egingo da (2/2006 Legea garatzen duten Premiazko Neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 32. art.). Laburpenaren helburua agiria laburbilduta baina modu eraginkor, erraz eta azkarrean ulertaraztea da. Horrenbestez, ez da dokumentu luzea izango, eta dibulgazio-liburuxketan ere kondentsatzeko modukoa izango da.

Horrekin guztiarekin Planean garatutako antolamendurako ideia eta irizpideak sistematizatzea eta planteatutako guztiaren ikuspegi orokorra eskaintzea lortu nahi da.